

EUSKAL HERRIKO ARTZAI TXAKUR TXAPELKETA

Txapelketarako lanak



1. ariketa

Sei minutu

Artzainaren esanetara, txakurra artaldera joan behar da, baina zelaiaren barrenetik. Bidean bi aldiz geldiaraziko zaio txakurrari epaimahaikoak esandakoan.

Ondoren, artaldera sartu eta zelai erdian dagoen hesiaren tartetik pasatuz artzaina dagoen lekura ekarriko ditu ardiak. Ardiak eta txakurra artzaiaren inguruan geldi geratu beharko dira epaimahaikoek esan arte.

Amaitzeko, epaileen esanetara, eskuineko edo ezkerreko hesi-tartetik pasa beharko dira ardiak.

2. ariketa

Zazpi minutu

Artzainaren esanetara, banderatzoz seinalatutako bidetik joan beharko du txakurrak eta ardiengana sartu. Artaldea hartu eta erdian dagoen eskortan sartzen saiatu beharko du. Behin lortu ezkerreko, zakarkeriarik gabe atera beharko dira berriro.